

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %2,1 hazi ziren 2006ko laugarren hiruhilekoan

Datu horien arabera, 2006ko hazkunde nominal metatua %4,6koa izan zen

Eustatek emandako datuen arabera, 2006ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %2,1 igo ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko berdinarean aldean. Hazkunde nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, %0,2ko urte arteko tasa positibo bihurtu da balio errealean.

Urte arteko hazkunde-tasa errealak. Euskal AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ.
				(AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2004	IV	5,4	7,7	1,0
2005	I	1,6	2,9	-1,0
	II	2,8	2,8	2,8
	III	1,7	2,7	-0,3
	IV	0,4	0,4	0,3
2006	I	4,7	7,1	-0,5
	II	2,2	4,0	-1,6
	III	4,4	7,2	-1,2
	IV	0,2	1,1	-1,7

Iturria: EUSTAT

Txikizkako merkataritza espezializatuaren salmenta nominalak %2,5 igo ziren 2006ko laugarren hiruhilekoan, 2005eko hiruhileko berdinarean aldean. Igoera nominal hori, azpisektoreetako prezioen bilakaeraren emaitza gisa, %1,1eko hazkunde-tasa erreal bihurtu da.

Balio nominaletan, gunee ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatuak) %1,5 igo ziren urteko laugarren hiruhileko horretan. Prezioen bilakaera kontuan hartuta, urte arteko tasaren aldakuntza errealak %1,7 izan da, 2005eko hiruhileko berarean aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren, urte arteko hazkunde-tasarik handiena pertsonen hornikuntzaren sektorean izan zen: %4,0ko hazkunde nominala, %2,4koa balio errealean. Elikagaietan, berriz, bilakaera motelagoa egon da, %3,6koa uneko eurotan. Euro finkotan bilakaera %0,7 izan da. Bestelako kontsumo-gaietako produktuen salmentak %1,3 igo dira balio nominaletan eta %1,8ra igo dira termino errealean. Etxearen hornikuntzako produktuen salmentak %0,7 igo dira balio nominaletan eta hori %1,5eko jaitsiera bihurtzen da termino errealean. Azalera ertain eta handietako txikizkako merkataritza ez-espezializatuaren arloan, batik bat

elikagaietako azpisektoreek izan dute urte arteko salmenten hazkundera, %1,6koa hain zuzen ere. Gainerako produktueta azpisektoreek, ordea, %0,7ko hazkundera lortu dute. Euro finkotan %-1,7 eta %-1,4 jaitsi dira hurrenez hurren.

Lurralde historikoka, 2006ko laugarren hiruhileko horretako txikizkako sektorearen salmenten hazkunderik handiena Araban izan zen, urte arteko %4,2ko igoerarekin: txikizkako merkataritza espezializatuaren salmentak %6,6 igo ziren eta %-0,3 ez-espezializatuarenak.

Gipuzkoak Arabaren antzeko bilakaera izan du txikizkako salmentei dagokienez; %4,1eko hazkundera izan du. Merkataritza espezializatuko salmentetan %5,8 igo da eta merkataritza ez-espezializatukoetan %0,7.

Bizkaiak bilakaera txikiagoa izan du txikizkako salmentetan: %0,6ko hazkundera izan du. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %-0,4 jaitsi dira eta azalera ertain eta handi ez-espezializatueta salmentak %2,3 igo dira, betiere urte arteko aldakuntza nominaleko terminotan.

Euskal AE osoan, betiere 2006ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean landunen kopurua %1,1 hazi da 2006ko laugarren hiruhilekoan.

2006. URTEKO BALANTZEA

Urte osoan, txikizkako merkataritzako salmentek metatutako %4,6ko hazkunde nominala izan dute. Termino errealetan %2,7ko hazkunde izan da.

Lurraldeen arabera, Arabak izan du urte osoko hazkunderik handiena, %8,9koa. Arabaren atzean Bizkaia dago, %4,3ko tasarekin, eta azkenik Gipuzkoa, %3,4koarekin. Hazkunde guztiak tasa nominaletan izan dira. Termino errealetan, hiru lurraldeetako hazkundeak hauek izan dira: %6,5 Araban, %2,5 Bizkaian eta %1,7 Gipuzkoan.

Aurreko urteko batez bestekoaren aldean, txikizkako merkataritza sektoreko metatutako enpleguak izan zuen hazkundea %1,1koa izan zen eta lurraldeka honakoak izan ziren: Araban %1,3koa, Bizkaian %1,1koa eta Gipuzkoan %0,9koa.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp